<u>Lehendakaria/Presidente</u>
Juan Ramón Ciprián Ansoalde

<u>Kidea/Vocal</u>
Mª Aranzazu Arana Learte

<u>Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria</u>
María Yeregui Hernández

**Resolución 7/2020 ebazpena**
Recurso 7/2020 errekurtsoa

ASMATU SLP eta I-INGENIA INGENIERÍA Y ARQUITECTURA SA enpresek kontratazioaren arloko errekurtso berezia jarri zuten Kontratazio Mahaiak 2020ko irailaren 22ko hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horren arabera, «*ZU.08 Eskuzaitzeta JE eremuko MUBIL POLOKO proiektuak eta bestelako azterlan tekniko osagarriak idazteko*» kontratua esleitzeko prozeduratik kanpo utzi ziren bi enpresa horiek, ez zutelako behar bezala egiaztatu administrazio klausula partikularren agirian eskatzen den kaudimen teknikoa. Horren aurrean, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bileran eta goian zehaztutako kideak bertan direla, ondorengo erabakia hartu du aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por ASMATU SLP e I-INGENIA INGENIERÍA Y ARQUITECTURA SA (en adelante, ASMATU-INGENIA) contra el acuerdo de la Mesa de contratación de 22 de septiembre de 2020 por el que se las excluye del procedimiento de adjudicación del contrato de "*Redacción de proyectos y otros estudios técnicos complementarios correspondientes del POLO MUBIL en el ámbito AU "ZU.08 Eskuzaitzeta"*" (expediente PE2020/203) por no haber acreditado suficientemente la solvencia técnica requerida en el pliego de cláusulas administrativas particulares, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

## ANTECEDENTES DE HECHO

**LEHENENGO.-** Gipuzkoako Foru Aldundiko Proiektu Estrategikoetako Departamentuko erregistroan 2020ko urriaren 9an aurkeztutako idazkiaren bidez, ASMATU-INGENIAk kontratazio arloko errekurtso berezia jarri zuen ebazpen honen goiburuan aipatutako erabakiaren aurka.

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado el 9 de octubre de 2020 en el registro del Departamento de Proyectos Estratégicos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, ASMATU-INGENIA interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acuerdo citado en el encabezamiento de esta resolución.

**BIGARREN.-** Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL)

**SEGUNDO.-** De conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 párrafo segundo de la Ley 9/2017,

56.2 artikuluaren bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, Proiektu Estrategikoetako Departamentuak errekurtsoa, administrazio espedientea eta dagokion txostena ofizioz bidali zituen, eta urriaren 19an sartu zen auzitegiaren erregistroan.

de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el Departamento de Proyectos Estratégicos remitió el recurso, el expediente administrativo y el correspondiente informe mediante oficio que tuvo entrada en el registro del Tribunal el 19 de octubre.

**HIRUGARREN.-** Departamentuak bere txostenean azaltzen duenez, kontratazio mahaiak, urriaren 14an egindako bileran, errekurtsoaren berri izan zuen, eta egiaztatu zuen ASMATU-INGENIAri irailaren 10ean bidalitako zuzenketa errekerimenduaren eta baztertzeko erabakiaren oinarri diren oinarrien artean agian ez dagoela erabateko korrelaziorik.

Hori dela eta, bazterketa indarrik gabe uztea erabaki zuen, kaudimen teknikoa egiaztatzeko aurkeztutako proiektuaren erabilera teknologikoa edo berrikuntzakoa justifikatzeko dokumentazioa eskatu behar zitzaiola iritzita.

Txostenak gaineratu duenez, ASMATU-INGENIA enpresak, errekurtsoa jartzeko idazkiarekin batera, eraikinaren erabilera teknologikoa eta berrikuntzakoa justifikatzen duen 2020ko irailaren 28ko ziurtagiria aurkeztu zuen. Ondorioz, Mahaiak erabaki zuen beste zuzenketa errekerimendu bat ez egitea, jada bazuelako beharrezko dokumentazioa, eta lizitatzailearen kaudimen teknikoa egiaztatutzat jo zuen, administrazio klausulen agirian ezarritakoaren arabera.

Halaber, adierazi du Mahaiak erabaki zuela ASMATU-INGENIA kanporatzea baliogabetzeko erabakia kontratatzailearen profilaren taulan argitaratzea eta auzitegi honetara bidaltzea, eta hori egin du.

**TERCERO**.- En su informe el departamento explica que la Mesa de contratación, reunida el 14 de octubre, tuvo conocimiento del recurso y constató que entre el requerimiento de subsanación remitido a ASMATU-INGENIA el 10 de septiembre y la fundamentación en la que se sustenta el acuerdo de exclusión pudiera no existir una correlación total.

Por ello, acordó dejar sin efecto la exclusión, por entender que se le debió haber requerido la documentación justificativa del uso tecnológico y/o de innovación del proyecto presentado para acreditar la solvencia técnica.

Añade el informe que, junto con el escrito de interposición del recurso, ASMATU-INGENIA aportó certificado de 28 de septiembre de 2020 por el que se justifica el uso tecnológico y de innovación del edificio. En consecuencia, la Mesa acordó no realizar un nuevo requerimiento de subsanación, al obrar ya en su poder la documentación necesaria, y dio por acreditada la solvencia técnica de la licitadora de conformidad con lo estipulado en el pliego de cláusulas administrativas.

Señala asimismo que la Mesa acordó publicar el acuerdo de revocación de la exclusión de ASMATU-INGENIA en el tablón del perfil de contratante y remitirlo a este Tribunal, lo que efectivamente ha hecho.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**LEHENENGO.-** Errekurtso berezia jarri da lizitatzaile bat 428.990 euroko balio zenbatetsia

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**PRIMERO.-** El recurso especial se interpone contra la exclusión de un licitador del

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

duen zerbitzu kontratu baten adjudikazio prozeduratik kanpo uztearen aurka.

procedimiento de adjudicación de un contrato de servicios cuyo valor estimado asciende a 428.990 euros.

Beraz, kontratazio alorreko errekurtso berezia jar daiteke errekurritutako egintzaren aurka, hala xedatzen baita Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 44.1.a) eta 44.2.b) artikuluetan eta Auzitegi honi dagokio errekurtsoaren berri izateko eskumena, hain zuzen ere Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuko 2.1 artikuluak emandakoa.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.b) del artículo 44 LCSP, y la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**BIGARREN.-** Errekurtsogileek SPKLren 48. artikuluan eskatzen den legitimazioa dute errekurtsoa jartzeko; izan ere, aurkaratutako erabakiak adjudikazio prozeduratik kanpo uzten zituen, eta SPKLren 50.1.c) artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epean egin zuten.

**SEGUNDO.-** Las recurrentes tienen la legitimación exigida por el artículo 48 LCSP para interponer el recurso, pues el acuerdo impugnado las excluía del procedimiento de adjudicación, y lo hicieron dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP.

**HIRUGARREN.-** Aurrekarien atalean adierazi den bezala, 2020ko urriaren 14ko erabakiaren bidez kontratazio mahaiak ondoriorik gabe utzi du errekurtsogileen bazterketa, eta onartu egin du haien eskaintza, haien kaudimen teknikoa egiaztatuta geratu dela iritzita.

**TERCERO**.- Como ha quedado reflejado en el apartado de antecedentes de hecho, por acuerdo de 14 de octubre de 2020 la Mesa de contratación ha dejado sin efecto la exclusión de las recurrentes y ha admitido su oferta, por considerar que su solvencia técnica ha quedado acreditada.

Horrek berekin dakar errekurtso honen xedea gertatzez desagertzea eta, beraz, amaitzea, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 84.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ello supone la desaparición sobrevenida del objeto del presente recurso y, por tanto, su terminación, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 84.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDA**

Amaitutzat jotzea ASMATU SLP eta I-INGENIA INGENIERÍA Y ARQUITECTURA SA. enpresek kontratazioaren arloan jarritako errekurtso berezia, haren xedea gertatzez desagertu delako.

Declarar terminado, por desaparición sobrevenida de su objeto, el recurso especial en materia de contratación interpuesto por ASMATU SLP e I-INGENIA INGENIERÍA Y ARQUITECTURA

SA.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2020ko urriaren 29a / San Sebastián, 29 de octubre de 2020.**